

## **STARTINNOVA 4**

### **4. DIRU-ITURRIAK**

Gure lehenengo iturria diru laguntza hau izango da, laguntzak pertsona ekintzaileentzat: laguntzak aktibitate enpresariak finkatzeko. "Lanbide - Servicio Vasco de Empleo" ematen dituenak.

Diru laguntza hau ekintzaileentzat bideratuta dago, honen helburua ekintzaileen existentzia areagotzea da, gero eta gutxiagoa delako.

Laguntza bi mila bostehun eurokoa izango da sustatzaile bakoitzeko. Zenbateko hori % 15 handituko da 18 urtetik gorakoa eta 30 urtetik beherakoa bada eskabidea aurkezten den unean, eta beste % 15 gehiago emakumea bada.

Lehenengo ordainketa dirulaguntzaren % 40koa izango da, zure diru laguntza eskaera onartu ondoren, diru-laguntza 2022an emango da.

Bigarren ordainketa, 2023an egingo da, benetan egindako gastuak aurkeztean, eta gainerako % 60a ordainduko da.

[https://www.euskadi.eus/ayuda\\_subvencion/2022/apec\\_2022/web01-tramite/es/#:~:text=Pr estaci%C3%B3n%20econ%C3%B3mica.el%20caso%20de%20ser%20mujer.](https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2022/apec_2022/web01-tramite/es/#:~:text=Pr estaci%C3%B3n%20econ%C3%B3mica.el%20caso%20de%20ser%20mujer.)

Diru-iturri horretaz gain, "Eusko Jaurlaritzak" 30.000 eurorainoko ekintzailetza-laguntzak eskaintzen dituela ikusi dugu, enpresa berritzaileak sortzeko. Ekintzaile programak 2,1 milioi euro eskaintzen ditu guztira. Diru-laguntza honen epea abenduaren 12an amaitzen da. Laguntza ekonomiko horren helburua Euskadi osoaren hazkunde ekonomikoa laguntzea da. Programak laguntzak jasotzen ditu enpresa berrien bideragarritasuna aztertzeko, abian jartzeko eta heltzeko prozesu osoan zehar laguntzeko, eta aholkularitza eta azpiegiturak eskaintzen ditu kokatu ahal izateko. Enpresak sortzen laguntzeko dirulaguntzetan (itzuli beharrik gabeko 30.000 euro, gehienez), enpresa-prestakuntzako, kanpoko aholkularitza eta laguntza teknikoko, prospekzio-azterketetako, azoketara joateko eta merkataritza-prospekzioko bidaletako edo maketak eta prototipoak egiteko gastuak sartzen dira.

Gure enpresa laguntza ekonomikoaren ezaugarri horietara egokitzen da, garapen-fasean dagoen proiektu berri batean.

Laguntza hori oso ondo etor dakiguke, eta enpresaren hazkundera eta garapena argi eta garbi lagundu. 30000 eurorainoko laguntza lortu ahal izatea asko lagunduko ligukeen bultzada izango litzateke, nahiz eta jasoko dugun diru-kopurua zehatz-mehatz argitu ez. Eskaera onartzen digutenean, jasotzen dugun zenbateko zehatza adieraziko digute, baina kalkulatu dugun 15000 eta 20000 euro artean eman ahal izango dizkigutela, gehiago edo gutxiago jasotzeko aukera baztertu gabe.

<https://www.spri.eus/es/emprendimiento/el-gobierno-vasco-ofrece-ayudas-de-empresarios-que-crean-nuevas-emprendimient-0-de-hasta-30-000-euros-para-la-creacion-de-empresas-innovadoras/>

Aurkeztuko dugun lehenengo diru laguntza 2500€koa da, hau gure lehenengo inbertsioa ahalbuderatuko luke, honekin gure lehenengo jostailuak ekoizten hasiko ginen, eta hauek online saltzen hasiko ginen.

Gure bigarren diru laguntza 30000€koa izango da, diru hau erabiliko genuke biltegi bat alokatzeko lehen erositako jostailuak gordetzeko, eta marketing kanpaina bat ordainduko genuke. Honi esker gure lehenengo salmentak lortuko genituzke, eta dirua edukiko genuke produktu gehiago ekoizteko.

Honekin gure enpresa hasiko zen, momentuan banku batekin mailegu bat prestatuko genuke, produktu gehiago ekoizteko eta era orokor batean aurreratzeko.

Gure enpresa aurrera eramateko, laguntzen dirua hainbat alderdi desberdinetan banatu behar dugu.

Alde batetik, gure jostailuak eraikitzeke erabiltzen ditugun enpresetan (Ecomagnet, gure enpresa, Smurfitkappa eta TodoBloques) inbertitzeak ekarriko dizkigun gastuak ditugu, hau da, blokeetan edo jostailuetan, imanetan eta zuran. Gasturik handiena imanak izango lirateke, inbertsioa 5500 eurokoa izango litzateke, gure produktua garatu ahal izateko gehien behar dugun materiala delako. Gainera, horrek bereizten du gure produktua gure sektorean uztartzen diren gainerako produktuetatik. Bigarren inbertsiorik garestiena blokeak dira, eta horretan 4.000 euro gastatzen ditugu, blokeak direnez, ez da oso gastu handia. Gainera, saltzen dizkigun enpresa Espainiakoa da, beraz ez dago bidaltzeko bide handirik. Azkenik, azken gastua zurarena da, aurreko biak baino merkeagoa 3250 eurokoa.

Diru kantitate hauek estimazioak dira. Ezin dugu jakin zehazki zenbat diru jasoko dugun eta zenbat kantitate gastatuko dugu atal bakoitzean.

<https://www.fotocasa.es/es/alquiler/local-comercial/sondika/sondika/165598000/d?from=list>

Inbertitzeko une berean irabazirik jasoko ez dugunez, 15000€ inguruko mailegua eskatuko dugu behar dugun kostu guztietarako aurre egiteko, eta edozein unetan sor daitezkeen arazoetarako koltxoi txiki bat izateko, hala nola komuna apurtzea edo horrelako zerbait apurtzen bada. Bigarren hilabetetik aurrera, kostuei aurre egiteko diru izango dugula uste dugu, baina horrelakorik ez bada gertatzen, bigarren mailegu bat eskatuko genuke. Hurrengo esteka mailegua eskatuko dugun orrialdea da.

[https://app.prestalo.com/?utm\\_source=ad\\_service&utm\\_content=MTAwX1NhbHRIZF9f43mEDgB49SMkbGKwoTEiefEfg02\\_gKu7JZma0UXtOwZ5GyEdZ4BFOA&utm\\_medium=37898&as\\_src=A\\_dservice&utm\\_campaign=adservice](https://app.prestalo.com/?utm_source=ad_service&utm_content=MTAwX1NhbHRIZF9f43mEDgB49SMkbGKwoTEiefEfg02_gKu7JZma0UXtOwZ5GyEdZ4BFOA&utm_medium=37898&as_src=A_dservice&utm_campaign=adservice)